

**AITA AURELIANO LANDETA AZKUETA  
(BASAURI-1887 – INDIA-1963)**

Karmel aldizkari honen aurreko alean, Aita Jose Luis Beobide idazle eta sermolari karmeldarraren berri emoterakotan Aureliano Landeta Azkueta misiolari beneragarriaren bizitza inprimategian egoala aitatzten neutsuen.

Une honetan atera barri dogu, esku artean, eta pozez bete gaitu bai misiolari horren barri zabaltzeko bide izango dalako bai Aita Jose Luis Beobidek hain gogotsu egindako lana irakurleen eskuetara heldu dalako.

Lerro honeetan ez naz liburu horren gorabehera zehatzak aztertzen hasiko. “Karmel lekukoak” bildumako 4. liburukiak 186 orrialde ditu eta bizkaieraz euskara ederrean idatzita dago.

Liburuaren mamiari begiratu, baina, izenak berak dinoanez Aita Aureliano Landeta Azkueta karmeldar misiolari beneragarriaren bizitza jasotzen dau. Era berean, maitasun eta ardura handiz egin eta argitaratua izan dala esan behar.

Nor dogu, baina, Aita Santuak 1999ko martiaren 26an beneragarri izendatu eban Aita Aureliano Landeta Azkueta, karmeldar misiolaria? Euskaldun guztion ohorea mundu zabalean, batez bere sortaldean, zabaldu dauan gizona izan zanez, gogora ekarri daiguzan beraren bizitza eta lanen barri nagusienak.

## **Bizitzako barriak**

Aita Aureliano Landeta Azkueta, Basauriko semea dogu. 1887ko garagarrilaren (ekainaren) 27an jaio zan Artunduaga auzunean. Hurrengo egunean, San Pedro bezperan bateatu eben San Migel eleizan, eta Pedro izena jarri eutsoen. Beraren aita, Pedro Landeta Perea, Basauriko semea zan, eta ama, Maria Antonia Azkueta Arrieta, Zaratamoko alaba.

Guztira zortzi neba-arreba izan ziran. Pedro (Aita Aureliano) bigarrena izan zan. 1896ko udabarrian egin eban lehen jaunartzea. 1898an, 11 urte zituela hil zorian egon zan ezkutuko gaitxotasun batek jota.

Parrokian meza laguntzaile izan zan. Bertan ezagutu ebazan sermoiak egitera etortzen ziran Larreako karmeldarrak. Bilboko Karmeloko eleizara bere joaten zan gurasoekaz. Hortik sortu jakon karmeldar izateko gogoia. Hasiara batean aitik ez eutson itxi gura semerik zaharrena zalako, baina, berean jarraitzen ebalá ikusirik, minez izan arren baietza emon eutson.

Horrela, bada, 1900ean joan zan karmeldarrak Nafarroako Alesbesen (Villafranca) eukeen ikastetxera, lehen mailako ikasketak egitera. Hemen sortu jakon misiolari izateko gogoia. Urte bi egin eta 1902ko garilean (uztailan) Larreara nobiziatua egitera. Fraile-jantzia hartzerakoan izena aldatu eban orduko karmeldarren arteko ohiturari jarraituz. Gure Pedro gazteak bizitza osoan aldean eroango eban "Sakramentu Santuaren Aureliano" izena aukeratu eban. 1903ko abuztuaren 5ean egin eban frailetzako profesia. Hurrengo, goi-mailako ikasketak egitera: filosofia, Burgosen eta Gasteizen, eta teologia, Gasteizen, Begoñako Karmelon, eta Iruñean. 1910eko abenduaren 17an egin zan apaiz Iruñean, hogeita hiru urte eukazala. Bertan jarraitu eban teologiako ikasketak sakontzen ikasturte osoan zehar. 1911ko irailean emon eban lehen meza herritarren aurrean San Migelgo elizan.

Handik laster bete ziran misio-lurretara joateko eukazan gogoak. 1912ko martian agurtu zituan etxeakoak eta herritarrak Indiara joateko. Bide batez, egonaldi bat egin eben bizitza

osoan zehar adiskide mina izango eban Aita Zakarias eta Aurelianok Erroman, "Gregoriar" fakultate ospetsuko antolaketaren barri jasoten, zelan eratzen ziran Goi Mailako eleiz ikasketak ikusi eta ikasten.

Aita Aureliano, bada, 25 urte eukazala joan zan misiolari Indiara. Han egin zituan 51 urte, behin bere jaioterrira etorri barik. 1963an, hirurogeita hamahiru urte eukazala hil arteraino. Hil eta gero bere, Indian jarraitzen dau, Alwayeko Seminarioan hilobiratuta dago eta.

### **Jarduerak:**

Aita Aurelianok, Puthempally, Alwaye eta Karmelgiriko Seminarioetan egin eban lan. Munduko misio-seminariorik handiena eta ospetsuena zan Alwayekoa. India osoko abadegaiak batzen ziran bertan, Filosofia eta Teologiako goi ikasketak egiteko. Bertan emon eban tantaka-tantaka, Indiari egindako oparizat bizitza osoa Aita Aurelianok.

Bertan irakasle, idazle, batzar-eratzaille, arimen zuzendari, nagusi, erretore, moldatzaile eta, lehenik-lehen, santutasunaren bilatzaile izan zan. Seminarioko buru eta bihotz, gidari trebe eta iaioa. Hiru milatik gora indiar abaderen irakasle. Aita on baten arduraz bete eban beti heziketa-lan eder hori guztien zerbitzari leiala izanik. Kerala aldeko eleiz izarra izan zan urtetan zehar. Hango gotzain, abade, abadegai eta herritarrak, gaur ere, santutzat daukee.

Seminariotik kanpo bere oso ezaguna izan zan. India osoan eta Asian zehar ospe handia eta ezaguera zabala emon eutsoen ardura eta ahalegin handiz eratu eta bideratu zituan *Goako II. Eukaristia Batzarrak* (1931eko abenduan) eta *Madrasko Kongresu Nazionalak* (1937ko abenduaren 29,30,31). Azkenengo honetan jende talde handiak (40.000 erromes baino gehiago) batu ziran; abadeak bere 600tik gora, eta 50 goitzain; herri-agintariak be bertara gonbidatuak izan ziran, katolikoak izan ez arren. Izugarritzko oihartzuna izan eban Asia alde osoan.

### Idazlanak:

Aita Aurelianok, eskolak emateaz eta heziketa lanak bete-tzeaz gainera, jo eta ke ekin eutsen bere idazte-lanari. Hiru liburu idatzi zituan. Lehen biak latinez eta hirugarrena ingelesez: ***Cursus asceticus*** (1917-1919) hiru liburukitan argitaratua. Gogo-bizitzako bideak argi eta zehatz argitzen dituena. ***Thesaurus electorum*** (1919), abadeei elizkizunak ondo egiteko otoitzak, irakurgaiak eta azalpenak eskaintzen eutsezana. ***The Mirror of Priests*** (Abadeen ispilua), lehen aldiz 1922an. Lau argitaraldi izan ebazan, arrakasta handia izanik Indian eta Ipar Amerikan. Beste hainbat idazlan eta txosten bere idatzi zituan, esaterako, Kongresu Eukaristikoetako aktak.

Esan beharra dago, Seminario handian irakasle asko izan arren gutxi izan ebela horrelako lan handiak egiteko indarra eta gogoia. Nortasun eta jakituria behar dira, gero, horrelako lanei eusteko. Eta hori, horrelako liburuak, argitaratzeko baime-na emon aurretik hain zorrotz aztertzen zituan egunetan.

### Ezaugarri nagusiak:

Pertsonaren handitasuna egintzetan baino gehiago izakera agertzen da. Gogoratu dagigun, beraz, labur-labur bada bere, nolakoa zan Aita Aureliano:

- *Langile fina*. Ez eban alperkerian gogaituta egoteko astirik izaten. "Bizitza hau laburra da eta atsedean hartzeko nahikoa denbora izango dogu zeruan" esaten eban.
- *Zintzoa*. Zeregin ugari izan arren, zehatz beteten zituan eguneroko betebeharrak: otoitz-orduak, meza santua, apai-zen eleiz otoitza, karmeldarren gogo-otoitzaldiak, errosario santua, Altarako Jesus Sakramentuari bisitak,....
- *Bibotz-zabala*. Beti zabalik edukitzen eban bere gelako atea, etorkion edonori edozein unetan, egunez nahiz gauez, laguntza emoteko gertu egonez.
- *Apala*. Ez eban inoren gaintetik egon gura izaten. Ez eban kargurik gura izaten. Halan da bere seminarioko errektoretza, eta beste zeregin arduratsu batzuk hartzera behartu eban.

- *Otzana*. Oso ernegu bizikoa ei zan gaztetan; zahartzaroan, ostera, patxadatsua, errukiorra, gozotasunez betea, mantso-mantsoa.
- *Zerbitzarien zerbitzaria*. Aparteko arduraz jagoten ei zituan etxeko morroiak eta laguntzaileak, euren artean inolazko bereizketarik egin barik.
- *Bakezalea*. Beti baketsu bizi izan zan inguruko guztiekin edozein zala haren pentsaera, erlijioa edo gizarte maila.
- *Adiskide zintzoa*. Inoiz etxera etorri ez arren, beti gogoan izan zituan etxekoak eta ezagunak, batez bere hildako senide eta lagunak. Koaderno batean apuntatuta edukitzen zituan euren izenak eta goizero irakurtzen otoitzetan gogoratzeko.
- *Txiroen artean txiroa*. Ez zan inoiz Euskal Herrira etorri. Zergaitik, baina? Ba, antza danez, Indiako txirotasuna hain handia zala ikusirik, hona etorteko egin beharreko gastuak pobreen aurrean iraintzat edo jotzen zitalako.
- *Hezitzaile irekia eta arduratsua*. Abadeei Indiako herri pobreen zelan jokatu irakasten saiatzen zan:
  - a) jauntxokeriarik gabe pobreen artean pobre izaten irakatsiz,
  - b) herriko ohiturak ondo ikasi eta herriko seme izaten jarraitzeko zorrotz aginduz,
  - c) beste erlijioetako pertsoneri begirune handia erakutsi eta euren balio onak jaso eta zaintzen ahalegintzeko eskatuz.

Honelakoa izan zan, ospetsua hurretik ezagutu eben leku-koak esandakoaren arabera, Aita Aureliano gure herriko misiolaria. Indian santutzat dauke eta santu izendatzeko eskatu eutsoen Erromari. Horretarako lehen azterketak egin ostean Aita Santu Joan Paulo II.ak kristau bertute heroikoak bizi izan zitala adierazi eta "Beneragarri" izendatu eban 1999ko martiaren 26an. Laster izango dogu, behar bada, altaretan Bizkaiko seme handi hau.

*Patxi Uribarren Leturiaga*

*AITA BEOBIDE*



**AITA AURELIANO  
LANDETA AZKUETA**

**MISIOIARIAREN BIZITZA**

**(1887-1963)**

**(Oharra:** Karmel aldizkaria hartzen dozuen guztioak, Aita Juan Bizente Zengotika-Bengoa karmeldar berriztarraren bizitza-liburua eta Aita Aureliano Landeta Azkueta benegarriren bizitza-liburua eskuratu gura badituzue, egin dei “Karmel” aldizkari honetara (94-6166019). Pozik eta ordainean ezer eskatu barik bidalduko deusueguz. Bi euskaldun misiolari handi hurretik ezagutzeko aparteko aukera izango dozue).